

JARRAIPEN TXOSTENA

TITULAZIOA	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITASUNA DUEN UNIBERTSITATE MASTERRA
ID ZENBAKIA	4311003
TITULUA EMATEN DEN ZENTROA	
ATXIKITZEN DEN ZENTROA	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
UNIBERTSITATEA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
TXOSTENAREN DATA	
JARRAIPENA EGITEN DEN IKASTURTEA	2014-2015

Unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen duen Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren, eta ondorengoko aldaketen, 27.artikuluaren eta Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17. Artikuluaren 4. atalean ezarritakoari jarraiki, goian aipatutako unibertsitate titulazio ofizialaren jarraipena egin da.

Jarraipen prozedura hau ,2016ko martxoaren 8an, Unibasq-eko Aholku Batzordeak Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate Tituluaren jarraipena egiteko onartu zuen protokoloa jarraituz egin da.

Txosten hau, Unibasq-eko Zuzendariak 2015eko apirilaren 1eko eta 2015eko Uztailaren 27ko ebazpenetan izendatutako Tituluak Ebaluatzeko Gizarte eta Lege Zientzietako Batzordeak era kolegiatuan egin du ezarritako irizpide eta jarraibide bakoitzaren gainean egindako balorazioetan oinarrituz. Jarraian bere analisia atxikitzen da.

ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA

Balorazio orokorra:

Matrikulatutako ikasle kopuru osoa 2013an aldatutako txostenean aurreikusten den %40ko tasan mantentzen da.

Titulua ematen duen zentroak dituen giza eta material baliabideak kontuan hartuz matrikulatutako ikasle kopurua egokia da.

2012-2013 ikasturtetik aurrera masterraren kopuru plaza 40 ikaslara murriztu da. Ratioa 1 inguruan kokatzen da (matrikulatutako ikasle kopurua/irakasle kopurua)

INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

TITULUAREN INFORMAZIO OROKORRA

Balorazio orokorra:

Tituluaren ezaugarri orokorrei buruz argitaratutako informazioa, orokorrean, egokia eta eguneratuta dagoela adieraz daiteke.

Informazioa, gaingiroki, zainduta, eskuragarri eta ondo garatuta dago. Hala ere, adierazi behar dugu ez dela puntu hauen inguruan informazioa argitaratzen:

- Tituluaren egresatuen lan munduratzea
- Eskola egutegia
- Eskainitako plaza kopurua

Web gunean dagoen laburpen taula interesdunentzako erabilgarritzat jotzen da.

Web gunearen menuak informazio bilaketa errazten du.

Hobekuntza gomendioak:

Tituluaren web gunean jarraian agertzen dien puntuei buruzko informazioa gaineratzea:

- kolektibo ezberdinen asetasuna. Informazioa gehitu
- tituluaren egresatuen lan munduratzeari buruzko datuak
- eskola egutegia
- eskainitako plaza kopurua
- Tituluaren adierazle nagusiak. Informazioa gehitu
- Onarpen eta hautaketa irizpideak. Ikusgaitasuna hobetu

Web gunearen gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioetan edukia eguneratzea gomendatzen da.

FORMAKUNTZA PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Balorazio orokorra:

Prestakuntza programari buruz argitaratutako informazioa egokia da eta eguneratuta dago.

Hobekuntza gomendioak:

Irakasleen prestakuntza eta kalitatearen inguruko informazio publikoaren hobekuntzan lan egin daiteke.

KALITATE BERMERAKO SISTEMAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Balorazio orokorra:

Beste erakunde batzuek formazioaren ebaluazioarekin lotutako kalitate prozesuen azalpenak daude web gunean. Kalitate Bermerako Sistemaren inguruan argitaratutako informazioa, orokorrean, eguneratuta dago eta egokia da.

Web gunean kexa, iradokizun eta erreklamazioentzako atal bat dago.

Hobekuntza gomendioak:

Kexa, iradokizun eta erreklamazio atala ikusgai egotea gomendatzen da.

KALITATE BERMERAKO SISTEMA (KBS)

Balorazio orokorra:

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak Kalitate Bermerako Sistema bat du. Bere ezarpena 2014ko azaroan egiaztatu zen. Kalitate Bermerako Sistema bere eskumenean dituen tituluen etengabeko hobekuntza ziklorako lagungarria da. Kalitatearen kultura ezarrita eta maila guztietan sartuta dago zentroan.

Hobekuntza gomendioak:

Web gunean eskuragarri dauden edukiak eguneratzea gomendatzen da. KBS-ren aplikazioarekin zerikusia duen dokumentazioa barne (KBS-ren jarraipen txostenak, emaitzak...)

Antzemandako jardute zuzenak:

Zentroak hartutako konpromisoa eta inplikazio maila handia, baita KBS-ren jarraipen txostenaren garapena.

LANGILE AKADEMIKOAK

Balorazio orokorra:

Jarraipen txostenean jasotzen diren adierazleetatik ondorioztatzen da irakaskuntza ematen duten langile akademikoak nahikoak eta egokiak direla matrikulatutako ikasle kopurua eta tituluaren ezaugarrien arabera.

Tituluaren erantzule den erakundeak irakasleentzako berariazko formazio planak burutzen ditu bere hezkuntza ereduan eta zuzeneko irakaskuntzan laguntza tresna diren teknologien erabilpenean. Hala ere, eta tasek egiaztapen txostenean aurkeztutakoarekin ezberdintasun handia ez badute ere, egiaztatutako irakasle eta irakasle doktoreen proportzioa txikia da.

Langile-taldeak egonkortasun handia aurkezten du (%91,6), baina irakasleen egiaztapen txikia.

Ez da langileen seiurteko eta bosturtekoei buruzko informaziorik ematen.

Hobekuntza gomendioak:

Doktorego gradua lortzeko sustapen plan zehatzak burutzea gomendatzen da, DOCENTIA programa garatzen jarraitzea eta egiaztapena duten irakasleen portzentajea hobetzea (gaur egun %18koa da).

Hurrengo jarraipen txostenetan lankide akademikoei dagozkien datuen eta adierazleen ekarpena egin beharko da, Unibasq-eko protokoloaren arabera.

Antzemandako jardute zuzenak:

Jardute zuzen bezala egiaztatu eta nabarmentzen da tituluaren identitate hezitzailea bermatzen duen berariazko irakaskuntza formazio plana.

ADIERAZLEAK

Balorazio orokorra:

Orokorrean, tituluaren tasak eta adierazleak zuzenak dira: errendimendua, uztea, arrakasta, ebaluazioa, eraginkortasuna eta ikasleen asetasuna handia.

Erakundeak asetasun datuak eta egresatuen lan-munduratzearen datuak galdatu behar ditu.

Hobekuntza gomendioak:

Egresatuen jarraipenerako programa bat abiaraztea gomendatzen da.

Graduazio tasaren beherakadari buruzko gogoeta egitea gomendatzen da.

Ikasleen mugikortasuna sustatzea guragarria da, hau nulua izan baita

Ikasle/irakasle ratio SIIU-n ezarritako definizioaren arabera kalkulatu behar da.

Antzemandako jardute zuzenak:

Titulazioaren ezagutza teoriko-praktikoen garapenen gisa MBLri ematen zaion arreta eta lankidetzan eta ikaslearen parte-hartzean enfasia jartzen duten proiektuetan, kasuetan eta arazoaren konponketan oinarritutako metodo eraginkorrak positiboki baloratzen dira.

ALDAKETAK**Balorazio orokorra:**

Ez da aldaketarik jakinarazten